



Sindikatuena Adierazpen Bateratua - CIG (Galiza), La Intersindical (Catalunya) eta ELA (Euskal Herria)

Bartzelona, 2024ko azaroa

CIG, La Intersindical eta ELA sindikatuok, honako hausnarketak egin ditugu eta jarraian agertzen diren konpromisoak hartu ditugu, beti ere, bakoitzaren errealitate anitzetatik abiatuta:

GAUR EGUNGO TESTUINGURU SOZIO-POLITIKOARI BURUZKO HAUSNARKETAK:

- Oso kezkatuta gaude gertatzen ari den oldarraldi atzerakoi eta birzentralizatzalea dela eta. Ofentsiba honek kohesio soziala kolokan jartzen du eta eskubide sozialak eta zerbitzu publikoak murriztu ditzake. Mobilizazio soziala eta sindikala kriminalizatzen da, eta gorrotoan oinarritutako diskurtsoak baliatzen dira baztertutako taldeak erasotzeko: pobrezian dauden pertsonak, emakumeak, migratzaileak, LGTBI kolektiboa, eta hizkuntza eta kultura propioak ditugun herriak. Era berean, kezkaz bizi dugu eskuin muturreko ideologiaren gorakada globala: langileen eskubideak mehatxatzen ditu eta herrien esplotazioa eta kontrol geopolitikoa betikitzen dituen agenda belikoa sustatzen du. Horrek kinka larrian jartzen du demokrazia eta gure askapen sozial eta nazionalen proiektuak.
- Estatu espainolean ez da benetako haustura prozesurik izan frankismoarekin, ezta memoriaren, justiziaren, erreparazioaren eta ez errepikatzeko bermeak ezartzeko ere. Estatuko botereetan (batez ere, epaitegiak, segurtasun indarrak eta komunikabide asko) ikusten den joera ideologikoa sistema unitario eta homogeneoa defendatzen du eta Estatuko errealitate plurinazionala eta autodeterminazio eskubidea ukatzen du. Europa gero eta militarizatuagoa dago, eta aurrekontu militarrek handitu dira, politika sozial eta ongizatearen inbertsioen kaltetan. Aurrerapenaren aitzakiapean gerrak eta indarkeriak justifikatzeko ahalegin guztiak gaitzesten ditugu, gatazka horiek herrien zapalketa betikitzen baitute eta herrialdeak suntsitzen baitituzte, Ukrainaren eta Palestinaren kasuan ikusi dugun bezala.
- Politika neoliberalak gero eta gogorrak dira, eta bizitzaren kostua etengabe igotzen ari da Euskal Herrian, Galizian eta Katalunian. Bitartean, egungo soldatekin ezin dira asetu langile klasearen oinarritzko beharrak. Etxebizitzaren egoera larria da krisi horren adibiderik nagusienetakoa. Testuinguru honetan, gorrotoan oinarritutako ideologietan sakontzeko arriskua handitzen da. Eta eskuin muturrak, egungo krisien erantzuleak seinatu beharrean (politika neoliberalak eta gutxi batzuen esku dagoen aberastasun pilaketa), kolektibo ahuletara desbideratzen du arreta, sektore horiek errudun gisa aurkeztuz eta arrazakeria, xenofobia eta matxismoa sustatuz.



KONPROMISOAK:

1.- Langileen bizi eta lan baldintzak defendatzea: Sindikatu nazionalak eta klaseko sindikatuak garen heinean, gure estrategiaren erdigunean kokatuko dugu lan baldintzak hobetzea. Bizi eta lan baldintza duinen defentsa funtsezko tresna da faxismoaren eta gorrotoaren gorakadari aurre egiteko. Esplotazio eta lan prekaritateari aurre egiten dion sindikalismoak bakarrik bermatu dezake gizarte justu eta demokratikoagoa. Horregatik, argi daukagu lan erreformen aurka gaudela, esplotazioan sakontzen dutelako eta pentsioak murrizten dituztelako. Honako hauek dira gure lan ildoak: aberastasunaren benetako banaketa, soldata duinak, lanaldia murriztea eta zaintza sistema publikoa.

2.- Hizkuntza eskubideak lantokietan: Langile guztien hizkuntza eskubideak beren lantokietan errespetatu eta sustatuko ditugu. Beste hizkuntza komunitateek bezala bizi eta lan egin nahi dugu, hizkuntza eskubide berdinekin; gure hizkuntzak (galegoa, katalana eta euskara) bizitza eta lan hizkuntzatzat aitortuta. Hizkuntza eskubideak ere lan eskubideak dira, eta funtsezkoak dira gure nortasun kulturala eta nazionala definitzeko.

3.- Autodeterminazioa eta lan eta babes sozialaren esparru propioak: Sindikatu subiranista gisa, gure herrien autodeterminazio eskubidea defendatzen jarraituko dugu. Espainiako Estatutik ezarritako marko politiko eta juridikoak oztopo dira gure behar eta asmoei erantzun dieten lan eta gizarte politika propioak garatzeko. Lan, enplegu eta gizarte politiken arloan eskumen guztiak berreskuratu behar ditugu, gure legedia gure errealitateetara egokitzeko.

**4.- Gizartea eraldatzeko sindikalismoaren alde eta `elkarriketa sozialaren´ gaitzespena:** `Elkarriketa soziala´ langile klasea geldiarazteko tresna baino ez da, alegia, elite ekonomiko eta politikoen interesak bermatzeko baliatu den mekanismoa, beti ere, langileen eskubideen kaltetan. Politika neoliberalak legitimatzen dituen eta sektore borrokalarienak geldiarazten dituen tresna bihurtu da. Konfrontatzeko gai den sindikalismoa defendatzen dugu, mobilizazio eta borrokarekin konprometitu, eta eliteek ezarritako mugak onartzen ez dituen.

5.- Ekintza sindikalaren batasuna: Klaseko sindikatu nazionalen arteko lankidetzan sakonduko dugu, beti ere, gure independentzia organikoa errespetatuz. Elkar indartu nahi dugu krisi anitzari (ekonomikoa, soziala eta ekologikoa) elkarrekin aurre egiteko, mundu justuago batera urratsak egiteko, non herri guztiak berdintasun osoz aitortuak izango diren.